

AHOZKOTASUNAREN IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA DBH-KO IKASLE ETORKINETAN. DESKRIPZIOA, ESPERIMENTAZIOA ETA EMAITZEN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Urtza Garay Ruiz

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Carlos Castaño Garrido

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honek DBHko ikasle etorkinetan bigarren hizkuntzen ahozotasuna praktikatzeko Web 2.0k eskaintzen dituen tresnez baliatuz bide bat proposatzen du.

Ikerketa hiru atal nagusitan banatzen da. Lehen atala oinarri teorikoen garapena da. Bertan, ikerlana gaur egungo ikerketa-ildoan artean kokatzeaz gain, esku-hartzea aurrera eramateko eta hipotesien baieztapenerako edo ezeztapenerako ikerlanean jasoko diren datuak aztertzeko datuak jasotzen dira. Horretarako, kapitulu hauetan, orokorrenetik hasi (etorkin-mugimenduaren garapenetik legedietara eta etorkin-kontzeptuaren definiziora) eta gero aspektu zehatzetara jo da (hizkuntzen irakaskuntza, etorkinei zuzendutako bigarren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza DBHn, ahozkotasanaren ikaskuntza-irakaskuntza eta Interneten erabilera hezkuntzan), oinarri teorikoen ondoriekin bukatzeko.

Bigarren atala esku-hartzearen garapena eta jasotako datuen azterketa da. Oinarri teorikoetatik abiatuz eta ikasle etorkinek DBHn azaltzen dituzten beharriak kontuan izanik, eduvlogak sortzean oinarri duen esku-hartzea egiten da. Esku-hartzea Bizkaiko bi ikastetxetan aurrera eraman ondoren, bertatik jasotzen diren emaitzak bi azterketa motaren bidez aztertzen dira: metodologia kuantitaboa eta kualitatiboa. Azterketa bakoitzetik ateratako emaitzak era desberdinduan aurkezten dira lehenik eta behin, eta hipotesiak kontuan izanik era bateratuan gero.

Bukatzeko, oinarri teorikoen eta esku-hartzetik jasotako datuen azterketa kualitatiboko eta kuantitaboko emaitzak eta ondorioak bateratuz, azken ondorioak agertzen dira, bai eta ikerlan honek zabaltzen dituen ikerketarako bide berriak ere.